



# 2023 URTEKO EMAITZAK

2024ko otsailak 27

# LEGE OHARRA

## DOKUMENTU HONEK INFORMAZIO-HELBURUA DU SOILIK.

Dokumentu honetan dagoen informazioa ez dute hirugarren independenteek egiaztatu; ildo horretatik, ez dago informazioaren edo bertan adierazitako iritzien edo aitortzen inpartzialtasunari, zehaztasunari, osotasunari edo zuzenketari buruzko berme zehatzik.

Dokumentu honek etorkizuneko aurreikuspenei eta estimazioei buruzko agerpenak izan ditzake eta horiek ezingo dira errendimenduko berme edo etorkizuneko emaitza gisa hartu, arriskuak eta gorabeherak izan baititzakete. Horietako asko CAFen kontroletik kanpo daude eta gerta daiteke emaitza errealak aipatutako aurreikuspenetan eta estimazioetan adierazitakoetatik materialki bat ez etortzea.

Beraz, inola ere ezingo da CAFeko akzioak saldu, erosi edo akzioetan parte hartzeko, edo beste edozein balio edo inbertsionarako aholku edo gomendio gisa hartu. Gainera, helburuen artean ez du produktu edo finantza-zerbitzurik eskaintzea.

Dokumentu honetan jasotako informazioa eta iritziak dokumentua prestatu deneko datan emandakoak dira eta alde aurretik jakinarazi beharrik izan gabe egiaztatzearen, amaitzearen eta aldatzearen mende daude. CAFek ez du estimazioak eta aurreikuspenak jendurrean eguneratzeko edo berrikusteko inolako betebeharririk hartzen bere gain. Eguneraketa edo berrikusketa horiek informazio berriaren, etorkizuneko gertakizunen edo beste gorabehera batzuen ondorio izan daitezke.

Dokumentu honetan jasotako informazioaren ondorioz hirugarren batek hartutako edozein erabaki hirugarren horren arrisku eta erantzukizun eskusiboaren eta bakarraren mende geratuko da. CAF, haren filialak edo ordezkariak ez dira edozein kalteren arduradunak izango eta ez dute dokumentu hau edo bertako edukia erabiltzetik eratorritako inolako erantzukizunik beren gain hartuko.

Dokumentu hau eta bertan jasotako informazioa CAFen jabetzakoak dira eta ezingo dira kopiatu, erreproduzitu, argitaratu edo banatu (osorik edo partzialki) CAFek alde aurretik idatzizko baimena eman gabe.

# AURKIBIDEA

1. 2023KO DATU AIPAGARRIENAK
2. FINANTZA INFORMAZIOA
3. BURTSAKO INFORMAZIOA
4. JASANGARRITASUNA
5. AURREIKUSPENAK
6. ERANSKINAK



 1

# 2023KO DATU AIPAGARRIENAK

# DUELA URTEBETE HELBURU HAUEK JARRI GENITUEN 2023RAKO

## CAF-EK 2023AN ERRENTAGARRITASUNA PIXKANAKA SUSPERTZEKO HELBURUA EZARRI DU


Aurreikuspenaren oinarriak:

- EKITALDIAN AURRERA JARRAITUKO DU OSAGAIEN HORNIDURAREKIN LOTUTAKO EGUNGO EGOERAK
- SUSPERRALDI ARGIKO BIGARREN SEIHILEKOA SOLARISENTZAT LEHEN SEIHILEKOAN TESTUINGURUAREN ERAGINAGATIK ERRENTAGARRITASUN HIGATUA IZAN DUTEN PROIEKTUEN EXEKUZIOA ONDOREN
- NAZIOARTEKO ERAKUNDE NAGUSIEK AURREIKUSPEN EKONOMIKO EGONKORRAK

/ 2023

Book-to-bill	≥1 Kontratazio selektiboa
Salmentak	+% 10-15
EBIT Emitza garbia	Errentagarritasunaren hobekuntza 2022 urtearekiko
Dibidendua	Emitzen bilakaerarekin bat dator
FZG	Egonkortasuna 2022. urtearekiko
JASANGARRITASUNA	Isurpenen murrizketa: egonkortasuna ESG ratioen kalifikazioa hobetuta

/ 2026



# EKITALDIA AMAITU ONDOREN, HELBURUAK BETE DIRELA BAIEZTA DEZAKEGU

## KONTRATAZIOA

4.775 M€  
-% 23

vs 2022ko FY

## ESKARI ZORROA

14.200 M€  
+% 7

vs 2022/12/31

## SALMENTAK

3.825 M€  
+% 21

vs 2022ko FY

## EBIT

179 M€  
% 29

vs 2022ko FY

## EBIT mj

% 4,7  
ehuneko +0,3 puntu

vs 2022ko FY

## BPA/DPA<sup>1</sup>

2,6€/1,11€

## Cash flow-a

55 M€

## FZG

256 M€

## FZG/EBITDA

0,9x

## JASANGARRITASUNA

Isurpenak gutxitzeko helburuak eta ratingak bete dira

Urtearen azken zatian, **kontratazioa bizkortu egin da**, eta urteko helburua gainditu. **Btb=1,2.**

**Zorroa 14.000 M €-ren gaintetik**

**Bi digituko igoera bi segmentuetako salmentetan**

**EBITen igoera nabarmena eta errentagarritasun operatiboaren hobekuntza**

**Cash flow positiboa eta balantzea indartzea**

**Akziodunari zuzendutako ordainketa emaitzen arabera igoko da<sup>2</sup>**

**Jasangarritasun arloko helburuak bete dira**

## 2024AN, JARDUERAREN ETA EMAITZEN HAZKUNDE ZIKLOAK AURRERA JARRAITZEA ETA EGUNGO FINANTZA EGONKORTASUNARI EUSTEA ESPERO DUGU

<sup>1</sup> BPA: Akzio bakoitzeko irabazia. DPA: Akzio bakoitzeko dibidendua.

<sup>2</sup> 2023ko ekitaldira zordundutako akzio bakoitzeko dibidendua 2024ko Akziodunen Batzar Nagusiak onartzearen mende dago.

Oharra: aldagai guztiek jasotzen dute 2022ko abuztuaren 1ean Alstomi aktibo garrantzitsuak erosi ostean Taldeak izandako perimetro-aldaketa.

# CAF-EKO ETORKIZUNERAKO FUNTSEZKO MUGARRIAK LORTU DITUGU ETA ZEHAZTUTAKO IBILBIDE ESTRATEGIKOAREKIN BAT DATOZ

## **/ FRANTZIAN ETA ALEMANIAN EROSITAKO PERIMETRO BERRIAK CAF TALDE BARRUAN EGINDAKO 1. EKITALDI OSOA**

CAFen **lehen kontratazioak** Coradia Polyvalent plataformarekin

**Proiektuen exekuzioa esperotakoaren araberakoa** da eta helburuak betetzen ari dira

**Jardunbide egokiak** eta horien ezarpena identifikatu dira

**Proiektuen transferentzia diseinuan eta fabrikazioan**, karga-gaitasuneko mailak orekatuz eta inbertsio-beharrak optimizatuz



## **/ TREN ZERBITZUEN KAPTAZIO HISTORIKOA**

**Salmenten errepikakortasun handia eta etorkizunerako ikusgarritasuna ematen ditu**

*(ikus 11. orrialdea informazio gehiagorako)*



# CAF-EKO ETORKIZUNERAKO FUNTSEZKO MUGARRIAK LORTU DITUGU ETA ZEHAZTUTAKO IBILBIDE ESTRATEGIKOAREKIN BAT DATOZ

## / SOLARISEN JOERAREN ITZULERA: HAZKUNDEAREN, ERRENTAGARRITASUNAREN ETA FINANTZA EGONKORTASUNAREN JOERARA ITZULI DA

2022an negozioaren bilakaeran eragin negatiboa izan zuten **inguruneko baldintzak egonkortu** egin dira (hornidura-katea eta inflazioa)

**Salmentek % 18 egin dute gora**, eta 800M €-an kontsolidatu dira

**Errentagarritasuna suspertzeko joerak aurrera jarraitu du**

Inbentarioen bolumenaren optimizazioa eta **abian dagoen lanaren murrizketa esanguratsua**, autobusen entregarekin lotuta

**Kutxaren fluxua positiboa** da kapital zirkulatzailaren liberazioa eta EBITDAren ekarpena direla eta

**Finantza arloko indartzea**, Finantza Zor Garbia nabarmen gutxituta

**Kontratazio historikoa: Btb =1,6**



<sup>1</sup>EB27 (Erresuma Batua eta Irlanda gabe, Solarisek ez baitu herrialde horietan partaidetzarik), Norvegia eta Suitza barne. Ez daude trolebusak sartuta.

## / SOLARISEK EUROPAN DUEN LIDERGOA SENDOTU DA<sup>1</sup>

Solarisek berriro ere **1. postua berreskuratu du Europako zero isurpeneko hiri-autobusen merkatuan<sup>1</sup>**, 2023an zein 2012-2023ko agregatuan

Solaris da Europa<sup>1</sup> mailako **lider absolutua hidrogeno bidezko teknologia** duten hiri-autobusen merkaturatzean

**Solarisen historian lehen aldiz, zero isurpeneko eta isurpen baxuko autobusak izan dira entregatutako unitate guztien % 80 baino gehiago**

## / BESTE SEGMENTU (HIRIARTEKO EUROPAKO MERKATUA) ETA GEOGRAFIA BATZUETARA (IPAR AMERIKARA) DIBERTSIFIKATZERA ZUZENDUTA SOLARISEK ABIAN JARRITAKO IBILBIDEAREN HASIERA

Solarisek bere produktua aurkeztu zuen 2023an Kanadan zero isurpeneko hiri-autobusen Ipar Amerikako merkatuan sartzeko bere estrategiaren baitan.





# CAF-EKO ETORKIZUNERAKO FUNTSEZKO MUGARRIAK LORTU DITUGU ETA ZEHAZTUTAKO IBILBIDE ESTRATEGIKOAREKIN BAT DATOZ

## / BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUARI EUSTEN DIOGU

**Energiaren metaketa** arloko belaunaldi berrien diseinua eta garapena

**Hidrogeno bidezko trenaren erakusleak emaitza onak izan ditu probatan**


- **Gaur egun, bideko proba-fasean dago Espainian**, zerbitzu komertziala ahalik eta gehien simulatuz
- Orain arte, modu hibridoan (H<sub>2</sub>+bateriak) **milaka kilometro egin ditu**
- Probak **neguko baldintzatan** (tenperatura negatiboak) eta **malda eta altitude handiko (>1.000m) ibilbideetan**
- **Autonomia handia** lortu da
- **Portugalen probak 2024ko 2HHan** hastea aurrez ikusi dute

**Urrunetik egindako gidatze-probak Osloko tranbiarako**, eta **urrutiko gidatze-probako eta gidatze autonomoko kanpainak mainline-an Holandako NS operadorearekin**

**Arrakasta komertziala bezeroen Leadmindeko soluzio digitalean**


## / GURE NET ZERO IBILBIDEAN AURRERA JARRAITZEN DUGU

**/ ISURPENEN MURRIZKETA**  
(2019. urtea oinarritzat hartuta)



**/ KALIFIKAZIO AGENTZIAK**

MSCI




SUSTAINALYTICS



ecovadis



CDP






S&P Global



**ALDERAKETA EGIN DEZAKEGUN BESTE LEHIAKIDE BATZUEN BATEZBESTEKOAREN GAINETIK JARRAITZEN DUGU**

# KONTRATAZIOA BIZKORTU EGIN DA URTEAREN AZKEN ZATIAN ETA, 2023AN, *BOOK-TO-BILL*-A 1,2KOA IZAN DA



**Kontratazioa iraunkorra izan da ekitaldi osoan eta 2023ko 4HHaren ekarpena handia izan da**

**Btb=1,2, nabarmen hobetu du ekitaldirako helburua**

Bi negozio-segmentuetan kontratazio handia:  
 Btb=1,2 trenen segmentuan  
 Btb=1,6 autobusen segmentuan

Bereziki nabarmendu beharrekoa da **autobusen segmentuan eta trenak mantentzeko zerbitzuetan izandako arrakasta komertziala**

**4 urteotako azken aldiko kaptazioaren urteko batezbestekoari erreparatuta, Btb 1en gaitetik mantendu dela ikus dezakegu. Jardueraren hazkundera oso esanguratsua izan da.**

Ekitaldian zehar, **kontratu-zabalkuntza ugari egin dira** (tren-ibilgailuetan sinatutako kontratuen >% 50)

**Aurretik ezagunak diren bezeroek konfiantza berri dute**

**Europako kontinentetik iritsitako kontratuen proportzioa handia** da Solarisen ekarpen handiari eta Espainian eta Erresuma Batuan sinatutako tren-kontratuen ekarpenari esker.

# ZERBITZU ETA AUTOBUSEAKO KONTRATAZIOA HISTORIKOKI HANDIA

## BANAKA ETA HISTORIAN LEHEN ALDIZ, KONTRATAZIOKO 1.000M €-KO ZIFRA HISTORIKOA GAINDITU DUTE

### / BOOK-TO-BILL RATIO ~ 2 ZERBITZUETAN

Zerbitzuen **kaptazio historikoa**, zerbitzuekin lotutako alderdi ugarietan (mantentze-lanak, ordezkioak, zerbitzu digitalak...)

Kontratazioa **Plan Estrategikoaren araberakoa** izan da bolumenean eta errentagarritasunean, eta helburu diren merkatuetan

Epe ertain-luzera begirako zerbitzuetako salmentetan **ikusgarritasun handia** (>15 urteko aldirako sinatutako hainbat mantentze-kontratu).

Kontratazio esanguratsuenak:

- Trenen hornidurari lotutako mantentzea - LNER (UK). 8 urte.
- Trenen hornidurari lotutako mantentzea - Renfe - Renfe MD (Espainia). 15 urte.
- Trenen hornidurari lotutako mantentzea - VRR (Alemania). 33 urte.
- Trenen mantentze-kontratu berritzea - FFSS (Mexiko). 15 urte.
- Trenen mantentze-kontratu berritzea - Renfe eta Madrilgo metroa (Espainia). 4 urte.
- Trenen mantentze-kontratu berria - CPTM (Brasil). 5 urte.
- Bolumen handiko hainbat kontratazio EuroMainten bidez

### Kontratazioen berritze-tasa >% 90

Mantendu beharreko flota gehienek operazio eta mantentze adimendunerako **CAF LeadMinden plataforma digitala** izango dute

**Identifikatutako pipelinea >6.000M € 2024-2025eko aldirako**, batez ere mantentze-jarduerari eta helburu diren geografiei lotuta. 2024rako aurrez ikusitako esleipena handia da. Hori ikusita, zerbitzuen kontratazioa **gaur egungo mailen inguruan kontsolidatu dela** esan dezakegu.

### / SOLARISEN LIDERGOA

**Errekorreko kontratazioa** autobus kopuruan, baina batez ere moneta-balioarekin lotuta

**Zero isurpeneko kaptazioa historikoa** izan da, 2023an Europako zero isurpeneko merkatuak (Solarisek oso posizionamendu ona du hor) izan duen birkortzearekin lotuta (urtetik urterako tasa % 50 igo da)

	2022	2023
Autobus elektrikoak % (elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak)	% 49	% 68
Trolebusen %	% 13	% 9
ZERO ISURPENEN ATALA, GUZTIRA	% 62	% 77 <sup>1</sup>

Kontratuen batez besteko neurria handitu egin da eta horrek agerian uzten du teknologiak heldutasun maila lortu duela eta bezeroek Solarisen proposamenean konfiantza jarri dutela

**Italiako merkatuko lizitazioen bolumen handia.** Solarisek merkatu-kuota handia du bertan, batez ere autobus elektrikoekin lotuta. Hainbat kontratu baieztatu dute, bezeroen errepikakortasun handiarekin >100 autobus.

Azken zikloko kontratazioen profilari lotutako **zorroaren errentagarritasuna pixkanaka hobetu** egin da.

<sup>1</sup> Kopuru horri isurpen baxuko autobusen edo autobus hibridoak kaptazioa (% 15) gehitu behar zaio. Ondorioz, 2023an, autobus jasagarrien edo emobility gamako ibilgailuen kontratazioa guztizkoarekiko % 91koa izan da.

## 2023ko 4HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak- TRENEN ARLOA

### / LNER-ENTZAKO (ERRESUMA BATUA) TRI-MODO TRENAK

- 10 kotxeko 10 tren, Britainia Handiko LNER operadorearentzat (London North Eastern Railway)
- Tri-modo trenak, modu elektrikoan, dieselan edo bateriekin funtzionatzeko gai izango direnak. Horixe izango da Erresuma Batuan teknologia horrekin funtzionatzeko gai izango den lehen flota.
- Mantentze-lanak 8 urtez.

>500M€



### / ALDIRIKO TRENAK (FILIPINAK)

- 8 kotxeko aldiriko 7 tren eta dagozkion parkeko piezak

150M €  
inguru



### / RENFERENTZAKO (ESPAINIA) MANTENTZE LANAK

- Distantzia ertaineko Renferen 17 tren elektrikoren mantentze integrala 15 urtez

100 M€  
inguru



### / ERROMAKO TRANBIA (ITALIA)

- 40 tranbia eta haien mantentze-lana 5 urtez, eta dagozkion parkeko piezak
- Proiektuko unitate kopurua beste 81 ibilgailutan handitzeko aukera (guztira, 121 ibilgailu).
- Aukera guztiak barne, zenbateko osoa 400M € baino handiagoa da.

>130M €



## 2023ko 4HHan iragarritako eta sinatutako kontratazio nagusiak- AUTOBUSAK

### **/ ZERO ISURPENeko AUTOBUSAK ITALIARAKO, ALEMANIARAKO ETA ESPAINIARAKO**

#### HIDROGENO BIDEZKO AUTOBUSAK VENEZIARAKO (ITALIA)

- Hidrogeno bidezko 90 autobus (haietako 75 autobus 12 metrokoak) eta 18 metroko 15 autobus artikulatu.
- Kontratuak unitate kopurua **beste 18 autobusetara handitzeko aukera** jasotzen du.

#### HIDROGENO BIDEZKO AUTOBUSAK BOLONIARAKO (ITALIA)

- **Europan egindako hidrogeno bidezko autobusen eskari handiena.** 12 metroko Urbino modeloko hidrogeno bidez propulsatutako 127 unitate biltzen ditu.
- Kontratuak, gainera, **beste 140 unitate arteko zabalkuntzak** jasotzen ditu.

#### CATANIARAKO (ITALIA) AUTOBUS ELEKTRIKOAK

- 42 autobus elektriko, haietako 32 Ubino 12 modelokoak, eta 18 metroko Urbino modeloko 10 unitate artikulatu.
- Horixe izango da Siliziako Catania hirirako Solarisekin sinatutako **autobus elektrikoen bigarren eskaria.**

#### MILANERAKO (ITALIA) AUTOBUS ELEKTRIKOAK

- 18 metroko Urbino modeloko 105 autobus artikulatu.
- Solarisen eta Milango ATMren arteko **harreman historikoa**; kontratatutako ibilgailu kopurua, guztira, ia 500ekoa da.

#### BERLINERAKO (ALEMANIA) AUTOBUS ELEKTRIKOAK

- 18 metroko Solaris Urbino modeloko 50 autobus elektriko.
- Bolumena **beste 650 unitate elektrikotara handitzeko aukera dago** hurrengo 8 urteotan.




#### MADRILERAKO (ESPAINIA) AUTOBUS ELEKTRIKOAK

- 50 autobus elektriko, haietako 30 ibilgailu 12 metrokoak, eta 20 autobus 9 metrokoak.
- 9 metroko autobus-modeloak **sariak jaso ditu orain gutxi izaera berritzailea dela eta.**

**>320M €**



# ESKARIEN ZORROAK HEDATZEN JARRAITZEN DU EKITALDIKO SALMENTEK IGOERA HANDIA IZAN DUTEN TESTUINGURUAN



**ZORROAK BULTZADA HANDIA IZAN DU AZKEN HIRURTEKOAN (+% 61)**

**ETORKIZUNeko JARDUERAREN IKUSGARRITASUNA HANDITU DA**  
(Azken 3 urteotan Zorroa/Salmentak ratioa handitu egin da)



**PLAN ESTRATEGIKOAREN HELBURUAK EGUNGO ZORROAN OINARRITUTA DAUDE NEURRI HANDI BATEAN**

**8.000M € GAUR EGUNGO ZORROAN JASOTA EZ DAUDEN ETA ETORKIZUNEAN ESLEI DAITEZKEEN AUKERATAN**

<sup>1</sup>Erositako perimetroko 2022 urte osoko salmentak jasotzen ditu (216M€).



# EUROPAK OSO DIBERTSIFIKATUTA DAGOEN ZORROAN GARRANTZIA HANDIAGOTU DU

/ ZORROAREN BANAKETA, JARDUERA LERROAREN ARABERA (%)



- **Autobusetako eta tren-zerbitzuetako** kontratazio handia dela eta, horien zorroa handitu egin da.
- **Tren arloko ibilgailuen zorroa zertxobait gutxitu da** ekitaldiko salmenten exekuzio handia dela eta. Hala eta guztiz ere, **oraindik Taldearen zorroaren erdia baino gehiago** biltzen du.

/ ZORRAREN BANAKETA, EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA (%)



- **Europaren garrantzia zertxobait handitu da** eta oraindik ere **Taldearen zorroaren zati nagusia (% 71)** ordezkatzen du.
- Mexikoko eta Brasilgo kontratazioek eragin dute **Amerikan gertatu den gorakada txikia**; aldiz, **APACen eta munduko gainerako tokietan, salmentek aldi horretako kontratazioa gainditu dute.**



**/ 2**  
**FINANTZA**  
**INFORMAZIOA**



# ALDAGAI GUZTIEK BILAKAERA POSITIBOA IZAN DUTE ETA ERRENTAGARRITASUNA HANDITU EGIN DA

(milioi eurotan)	2022	2023	Ald. 2023/2022
<b>NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA</b>	<b>3.165</b>	<b>3.825</b>	<b>+% 21</b>
<b>USTIAPENAREN EMAITZA - EBIT</b>	<b>139</b>	<b>179</b>	<b>+% 29</b>
<b>EBIT Marjinaren %</b>	<b>% 4,4</b>	<b>% 4,7</b>	<b>-</b>
Finantza arloko emaitza	(53)	(44)	-% 17
Finantza-sarrerak	11	28	+% 149
Finantza-gastuak	(63)	(69)	+% 10
Trukeko edo kanbioko aldeak	(3)	(5)	+% 58
Finantza arloko beste gastu/sarrera batzuk	1	1	+% 23
Partaidetza-metodoaren arabera baloratutako erakundeen emaitza	<b>6</b>	<b>6</b>	<b>+% 6</b>
<b>ZERGEN AURREKO EMAITZA</b>	<b>91</b>	<b>141</b>	<b>+% 54</b>
Irabazien gaineko zerga	(36)	(48)	+% 33
Zergen ondoren, emaitza garbia	55	92	+% 68
Interes minoritarioak	3	3	+% 18
<b>SOZIETATE NAGUSIARI EGOTZITAKO EMAITZA</b>	<b>52</b>	<b>89</b>	<b>+% 71</b>

**Salmentek gorakada handia** izan dute (urterako ezarritako helburuaren gainetik)

EBITaren progresioa salmenten gainetik egon da eta azkenaldiko inflazio handiaren inpaktutik suspertzeko prozesuak aurrera jarraitu du.



Ondorioz, **errentagarritasun operatiboa hobetu egin da, ekitaldirako ezarritakoarekin bat etorrira.**

**Finantza-emaitzak hobekuntza nabarmena** izan du, finantza-sarrerak izandako gorakadari esker. Horiek nabarmen konpentsatu dute zorraren kostuak izandako gorakadari lotutako inpaktu negatiboa.

Hori guztia dela eta, 2023an **igoera handia gertatu da emaitza garbi bateratuan.**

# BI SEGMENTUETAN GORAKADA HANDIA IZAN DUTE SALMENTEK ETA HORREK BAIEZTATU EGIN DU HAZKUNDE JOEREK AURRERA JARRAITU DUTELA

## SALMENTAK




<sup>1</sup> Zifra honek 2022ko abuztuan eskuratutako perimetro berriak eratorritako 214M € biltzen ditu. Inpaktu hori albo batera utzita, salmenta organiko bateratuek eta tren arlokoek % 17 egingo zuketean gora bi kasuetan.

# JOERA HEDAKORRA TREN ARLOKO JARDUERA GUZTIETAN

## TREN ARLOKO SALMENTAK


### / TREN IBILGAILUAK



Salmentetan ekarpen handiena izan duten proiektuak honako hauek izan dira: Docklands Railentzako (Erresuma Batua) metroak, SNCFrentzako (Frantzia) eskualde-trenak, Myanmarrerako trenak, RATPrentzako (Frantzia) aldiriko trenak, VRRentzako (Alemania) bateria bidezko trenak, Jerusalemerako (Israel) tranbiak eta Oslorako (Norvegia) tranbiak. Horiek guztiek, elkarrekin, **salmenta guztien % 50 biltzen dute.**


4HHko salmentak aurrez ikusitakoaren gainetik bizkortu dira.

### / ZERBITZUAK



**Bi digitu inguruko gorakada gertatu da** geografia ugaritan ordezko piezen salmentak eta mantentze-jarduerak izandako gorakadak direla eta.

### / SOLUZIO INTEGRALAK ETA SISTEMAK




**Mexikoko proiektu integralei, Birgaitze-proiektuen** dibisioari eta errodadurako elementuen hornidurak (**MiiRaren** eskutik) izandako gorakadari esker, nabarmen hobetu dira ekitaldian zehar soluzio integraletako eta sistemetakoko salmentak.


# AUTOBUSEK ENTREGA SENDOA IZAN DUTE 2023AN ETA GEHIENAK ZERO ISURPENENKOAK IZAN DIRA (ELEKTRIKOAK ETA HIDROGENO BIDEZKOAK)

## AUTOBUSEN SALMENTAK

### / ENTREGATUTAKO AUTOBUS KOPURUA



### / ZORROKO AUTOBUS KOPURUA



#### Zero isurpenak

Autobus <b>elektrikoen</b> % (elektrikoak eta hidrogeno bidezkoak)	<b>% 30</b>	<b>% 53</b>	<b>% 68</b>
<b>Trolebusen</b> %	<b>% 5</b>	<b>% 14</b>	<b>% 15</b>
<b>Isurpen baxuak</b>			
Autobus <b>hibridoen</b> %	<b>% 21</b>	<b>% 15</b>	<b>% 12</b>
<b>Emobility</b> autobusen GUTZIZKO % (zero isurpenak eta isurpen baxuak)	<b>% 55</b>	<b>% 82</b>	<b>% 95</b>

**Hornidura-katea pixkanaka berreskuratu izanari esker**, ekitaldiaren hasieran aurrez ikusitako autobus kopurua entregatu ahal izan da.

**Egonkortasun operatiboa.** Produkzio-prozesuko autobus kopuruaren urtetik urterako tasan % 50eko jaitsiera gertatu da.

**Entregatutako autobusen erdia baino gehiago izan da elektrikoa** (bateria edo hidrogeno bidezkoak) eta tasa hori Europako merkatukoa baino handiagoa da (% 40<sup>1</sup>). Horrek agerian utzi du hiriko mugikortasun publikoa zero isurpenetara bideratzeko eraldaketan Solarisek duen lidergoa.

**Erreketa alternatiboko autobusek, lehen aldiz, urte osoko entregan % 80 gainditu dute.**


Polonia, Espainia, Italia, Norvegia eta Alemania dira 2023an entregatutako flota gehienak jaso dituzten herrialdeak.

Ekitaldiaren amaieran, **zorroko autobus bolumena handia da**. 2024an, 2025ean eta 2026an entregatu beharreko **zero isurpeneko gamaren proportzioa historikoa da**.


# >%15EKO MERKATU KUOTAREKIN, SOLARISEK ZERO ISURPENENKO HIRI AUTOBUSEN EUROPAKO MERKATUAN ZUEN LIDERGOA SENDOTU DU

## AUTOBUSEN SALMENTAK

**/ ZERO ISURPENENKO HIRI AUTOBUSEN EUROPAKO MERKATUA (ELEKTRIKOAK ETA HIDROGENO BIDEZKOAK<sup>1</sup>)**



## LIDER ABSOLUTUA HIDROGENO BIDEZKO HIRI AUTOBUSEN



2023RA ARTE % 40RA ARTE IGO DEN ARREN, ZERO ISURPENENKO HIRI AUTOBUSEN GAUR EGUNGO SARRERAK POTENTZIAL HANDIA DU ORAINDIK ERE EUROPAN:

**2035EAN EROSITAKO HIRI AUTOBUSEN % 100EK IZAN BEHAR DU ZERO ISURPENENKOA<sup>3</sup>**


<sup>1</sup> Erregistratutako hiriko autobusak, MMA > 8t. EB27 (Erresuma eta Irlanda kanpoan utzita. Solarisek ez baitu herrialde horietan partaidetzarik), Norvegia eta Suitza. Ez daude trolebusak sartuta.

<sup>2</sup> TPER operadorearekin Bolonia hirian sinatutako kontratua.

<sup>3</sup> <https://www.consilium.europa.eu/en/press/press-releases/2024/01/18/heavy-duty-vehicles-council-and-parliament-reach-a-deal-to-lower-co2-emissions-from-trucks-buses-and-trailers/>

# EMAITZA OPERATIBOAK GORAKADA ESANGURATSUA IZAN DU ETA ERRENTAGARRITASUNA HOBETU EGIN DA

/ EBIT (M€) eta EBIT marjina (%), urtekoa eta sei hilez behingoa



## TREN ARLOA

- **Tren arloko EBITak % 20 egin du gora** 2022ko datuekin alderatuta
- **Errentagarritasunean oraindik ere eragina du** aurreko ekitaldietan inflazioaren eragina jasan duten jardueren eta proiektuen kostuetan gertatutako gorakadak (aurrez ikusitakoaren araberakoa da).

- ▲ Jardueraren hedapena.
- ▲ Energia-kostuaren murrizketa.
- ▼ Inflazioaren eragina jasan duten jardueretan, proiektuek aurrera egin dute eta errentagarritasuna gutxitu egin da.


## AUTOBUSAK<sup>1</sup>

- **EBIT positiboa 2023 urte osoan eta hobetu egin da** zorroko proiektuak berriro ahala (kostuen gorakadaren eragina jasan duten proiektuak atera egin dira, eta errentagarritasun-jaitsierarik gabeko proiektuak sartu).
- **2023ko 1. seihilekoko EBIT marjinak dagoeneko gainditu egin du 2022ko 1. seihilekoko EBIT marjina.**

- ▲ Baldintza berriekin kontratatutako proiektuen gauzatze gorakorra (prezioak testuinguruaren errealitatearen arabera eguneratu dira).
- ▲ Hornikuntza-katearen pixkanakako normalizazioa.
- ▲ Abian dauden produktuen mix-a.
- ▼ Narriatutako marjinadun proiektuen entrega.
- ▼ PLNaren apreziazioa.

<sup>1</sup>Zehaztutako autobusen EBIT datuak dagoeneko deskontatu du CAF Taldearen Solarisen erosketako amortizazioa (6M€/urtean, gutxi gorabehera).


# TALDEAREN CASH FLOWA 55M €-KOA DA, EMAITZAREN GORAKADARI ESKER




# BALANTZEA INDARTU DA JARDUERA HANDITU DENEKO TESTUINGURUAN

(milioi eurotan)	2022	2023
Aktibo finkoak	1.437	1.371
Zirkulatzailan egindako inbertsioa	(195)	(74)
<b>Aktibo garbia</b>	<b>1.242</b>	<b>1.297</b>
Ondare garbia	788	868
Finantza-zor garbia	278	256
Beste aktibo eta pasibo batzuk	176	173
<b>Ondarea eta pasibo garbia</b>	<b>1.242</b>	<b>1.297</b>

## / CAPEX (MATERIALA + INMATERIALA) (M€)



## / ZIRKULATZAILE GARBIA (M€)





Honako hauek eragindako zirkulatzaila garbiaren bilakaera:

- ▲ Proiektuen gauzatze-zikloa trenen negoziotan
- ▼ Solariseko inbentarioak gutxitu egin dira hornidura-katearen egonkortzearen eta erdiamaituta dauden unitateen liberazioaren eta amaierako bezeroari entregatu izanaren ondorioz.





# FINANTZA POSIZIOA HOBETU EGIN DA ETA FZG/EBITDA RATIOA < 1



**CAF-EK 300M € INGURUKO KUTXA SORTU DU AZKEN 4 URTEOTAN NAHIZ ETA 2019TIK TESTUINGURUA ZAILDU EGIN DEN  
ETA JARDUERAK GORAKADA HANDIA IZAN DUEN ARREN (SALMENTEN +% 50 INGURU)**

# DIBIDENDUEN PROPOSAMENA EMAITZEKIN BAT DATOR ETA ERRENTAGARRITASUN ERAKARGARRIA ESKAINTZEN DU



## AKZIODUNARI ZUZENDUTAKO ORDAINKETAREKIKO KONPROMISOA

<sup>1</sup> Honela kalkulatuta: Akzio bakoitzeko dibidendua / Urteko batez besteko kotizazioa.

<sup>2</sup> 2023ko ekitaldira zordundutako akzio bakoitzeko dibidendua 2024ko Akziodunen Batzar Nagusiak onartzearen mende dago.


**/3**

# BURTSAKO INFORMAZIOA



# CAF-EKO AKZIOEN BALIOA % 23 IGO DA 2023AN ETA ANALISTEK % 30 BAINO GEHIAGOKO POTENTZIALA EMAN DIOTE <sup>1</sup>

## CAF-EN BILAKAERA VS IBEX ETA SEKTOREA<sup>2</sup>




## BURTSAKO ADIERAZLEAK

### 2023

Burtsako kapitalizazioa (eurotan)	1.117.552.450
Akzio kop.	34.280.750
Azken kotizazio-prezioa (eurotan)	32,6
Gehieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	33,5
Gutxieneko kotizazio-prezioa (eurotan)	24,1
Negoziatutako bolumena (milaka akzio)	10.166
Negoziatutako eskudirua (milaka euro)	298.556

## AKZIOEN EGITURA



<sup>3</sup> % 3 baino gehiagoko partaidetza edo, paradisu fiskaletan egoitza duten inbertsiogileen kasuan, % 1eko partaidetza duten inbertsiogileak biltzen ditu (Iturria: CNMV). Likidezia-kontratuari lotutako autozorroko ekintzak ere barne hartzen ditu.

**EZ DA AKZIOEN OSAERAN GARRANTZI HANDIKO ALDAKETARIK GERTATU**

<sup>1</sup>2024ko urtarrilaren 29an. Iturria: Factset

<sup>2</sup> Sektorearen bilakaera hurrengo 4 lehiakideen batez besteko bilakaeraren arabera neurtzen da: Alstom, Stadler, CAF eta Talgo.

An aerial photograph showing a landscape with a road, railway tracks, and green fields. The road is a two-lane asphalt road with a white dashed center line. To the left of the road are railway tracks with gravel ballast. The surrounding area is lush green with trees and fields. The text '4' is overlaid on the image, with a red diagonal slash to its left.

**/ 4**

# JASANGARRITASUNA

# MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ETORKIZUNA ZUZENTZEKO ONDO PRESTATUTA GAUDE, PLANETAN ETA PERTSONENGAN DUGUN INPAKTU POSITIBOA MAXIMIZATUTA

## / JASANGARRITASUNA DA ESTRATEGIAREN ARDATZA

### / HELBURUAREN DEFINIZIOA ETA MISIOAREN, IKUSPEGIAREN ETA BALIOEN EGUNERAKETA



**/ JASANGARRITASUNENK BATZORDE ESTRATEGIKOA ERATU DA KONTSEILARI DELEGATUAK ZUZENDUTA.** BATZORDE OPERATIBOAK EMANGO DIO INFORMAZIOA ETA BIAK EGONGO DIRA ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN MENDE BATZORDEEN BIDEZ.



## / KONPROMISO BERRIAK

**/ CAF-EK ASCOM-EKIN BAT EGIN ZUEN.** HORREK AGERIAN UTZI DU ENPRESAK NEGOZIOEKIN ETA ARAUDIA BETETZEAREKIN LOTUTA BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISO IRMOA



**/ "RAILSPONSIBLE CLIMATE PLEDGE" SINATU DU ENPRESAK.** HORREN ARABERA, TREN ARLOKO HORNIKUNTZA KATEAREN DESKARBONIZAZIOA GIDATZEKO KONPROMISOA HARTU DU ENPRESAK



**/ LEHEN BALORAZIOA CDP FOREST 2024AN.**



**/ 2024AN ARGITARATUKO DA FINANTZAKETA BERDEAREN ETA JASANGARRIAREN LEHEN ESPARRUA**


**/ 2024AN ARGITARATU BEHARREKO MATERIALTASUN BIKOITZAREN ETA GIDA PLANAREN AZTERKETA BERRIA**



## / EMAITZAK<sup>1</sup>


### / ISURPENEN MURRIZKETA (2019ko urtea oinarritzat hartuta)

1&2 Irismena



-% 32,6


3 Irismena (produktuaren erabilera)



-% 46,8


### / EUROPAKO TAXONOMIA (Negozio-bolumena)

Hautagarritasuna



% 97


Lerrotkatzea



% 80

### / KALIFIKAZIO AGENTZIAK

(alderaketa egin dezakegun beste lehiakide batzuen batezbestekoaren gainetik)



<sup>1</sup> Informazio gehiago dago eskuragarri eranskinetan jasota dagoen Jasangarritasuneko Aginte Koadroan edo sozietatearen webgunean ([www.caf.net](http://www.caf.net)) argitaratutako 2023ko Jasangarritasuneko Txostenean.



**/5**

**AURREIKUSPENAK**

# 2024AN, JARDUERAREN ETA EMAITZEN HAZKUNDE ZIKLOAK AURRERA JARRAITZEA ETA EGUNGO FINANTZA EGONKORTASUNARI EUSTEA ESPERO DUGU


/ 2024<sup>1</sup>

Book-to-bill	>	≥1 Kontratazio selektiboa
Salmentak	>	+% 10 ingurukoa 2023 urtearekiko
EBIT Emitza garbia	>	Errentagarritasunaren hobekuntza 2023 urtearekiko
Dibidendua	>	Emitzen bilakaerarekin bat dator
FZG/EBITDA ratioa	>	Egonkortasuna 2023 urtearekiko
JASANGARRITASUNA	>	Isurpenen murrizketa: egonkortasuna ESG ratioen kalifikazioa hobetuta

<sup>1</sup> Ikuspegi horiek baztertu egiten dute edozein eragiketa ez-organikoren balizko eragina, eta nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoaren egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen dira, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.



# 2026RA BEGIRAKO HELBURUAK BERRETSI DITUGU PLAN ESTRATEGIKOA AURKEZTU GENUENETIK INGURUKO BALDINTZAK ALDATU EGIN DIREN ARREN

/ 2026<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Aurreikuspena nazioarteko erakunde nagusien ikuspegi ekonomikoaren egonkortasunaren hipotesi nagusian oinarritzen da, bai eta gaur egungo gatazka geopolitikoetan ere.

A photograph of a business meeting in progress. Several people are seated around a table, looking at and pointing to data on laptops and tablets. The scene is dimly lit, with a blueish tint, suggesting a professional and focused atmosphere. The text '6 ERANSKINAK' is overlaid on the left side of the image.

# 6 ERANSKINAK

## 2023KO URTARRILA-ABENDUA ALDIKO ESKARIEN ZORROAN JASOTAKO ETA IRAGARRITAKO KONTRATUAK


DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	DESKRIBAPENA	BEZERO A	MOTA	AUKERA OSAGARRIAK	NEGOZIOA						ZENBATE KOA (M €)	
							IBILGAILUAK		GAINERAKO NEGOZIOAK					
							# unit.	Plataforma	Nezozioa	Irismena	Ezaugarriak			
2023ko 1HH	Aschaffenburg	Alemania	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez			✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	12	>40	
2023ko 1HH	Cagliari	Sardinia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez			✓	Autobusa	Autobus hibridoaren hornidura	100		
2023ko 1HH	Budapest	Hungaria	Tranbietarako hornidurak	Berria ez	Luzapena	Bai	✓	31	Urbos				-	
2023ko 1HH	Coradia Polyvalent	Frantzia eta Senegal	Eskualdeko trenen hornidura	Berria ez	Luzapena	Bai	✓	18	Coradia Polyvalent				161	
2023ko 2HH	Aldirikoak	Espainia	Aldiriko trenen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Bai	✓	29	-				-200	
2023ko 2HH	Alcalá de Guadaíra	Espainia	Tranbien hornidura eta mantentzea	Berria ez	Oinarri-kontratua	Bai	✓	6	Urbos	✓	Zerbitzuak	Tranbien mantentze-lana	2	
2023ko 2HH	Rostock	Alemania	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	52	-
2023ko 2HH	Docklands	Erresuma Batua	Metro motako unitate automatikoen hornidura	Berria ez	Luzapena	Ez	✓	11	-				>90	
2023ko 2HH	Napoles	Italia	Metroen hornidura eta mantentzea	Berria ez	Luzapena	Ez	✓	6	-	✓	Zerbitzuak	Metroen mantentze integrala	3	-
2023ko 2HH	Palermo	Italia	Tranbietarako hornidurak	Berria	Oinarri-kontratua	Ez	✓	9	Urbos					
2023ko 2HH	Aarhus	Danimarka	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoaren hornidura	56	-
2023ko 3HH	Distantzia ertaina	Espainia	Distantzia ertaineko trenen hornidura	Berria ez	Luzapena	Bai	✓	32	-				-190	
2023ko 3HH	Cagliari	Italia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoaren hornidura	98	-
2023ko 3HH	Euskotren	Espainia	Aldiriko trenen eta seinaleztapen-sistemen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez	✓	5	-	✓	Seinaleztapena	1. mailako ERTMS ekipoen hornidura	-	-60
2023ko 3HH	Duisburg	Alemania	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	25	-
2023ko 3HH	Nobina Stockholm	Suedia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoaren hornidura	55	-45
2023ko 3HH	Kristianstad	Suedia	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoaren hornidura	23	
2023ko 3HH	Kolonia	Alemania	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	18	-150
2023ko 4HH	Bolonia	Italia	Autobusen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Bai				✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	127	
2023ko 4HH	Venezia	Italia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Bai				✓	Autobusa	Hidrogenozko autobusen hornidura	90	

(hurrengo orrialdean jarraipena)

## 2023KO URTARRILA-ABENDUA ALDIKO ESKARIEN ZORROAN JASOTAKO ETA IRAGARRITAKO KONTRATUAK


DATA	PROIEKTUA	HERRIALDEA	DESKRIBAPENA	BEZEROA	MOTA	AUKERA OSAGARRIAK	NEGOZIOA						ZENBATE KOA (M €)	
							IBILGAILUAK		GAINERAKO NEGOZIOAK					
							# unit.	Plataforma	Negozia	Irismena	Ezaugarriak			
2023ko 4HH	LNER	Erresuma Batua	Tri-modu trenen hornidura	Berria	Oinarri-kontratua	Ez	✓	10	Civity UK	✓	Zerbitzuak	Unitateen mantentze integrala	8	>500
2023ko 4HH	Clark	Filipinak	Aldiriko trenen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez	✓	7	-					~150
2023ko 4HH	Milan	Italia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoen hornidura	105	>120
2023ko 4HH	Catania	Italia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoen hornidura	42	
2023ko 4HH	Berlin	Alemania	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Bai				✓	Autobusa	Autobus elektrikoen hornidura	50	>70
2023ko 4HH	Madril	Espainia	Autobusen hornidura	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Autobusa	Autobus elektrikoen hornidura	50	
2023ko 4HH	Erroma	Italia	Tranbietarako hornidurak	Berria ez	Oinarri-kontratua	Bai	✓	40	Urbos	✓	Zerbitzuak	Unitateen mantentze integrala	5	>130
2023ko 4HH	Distantzia ertaina	Espainia	Unitateen mantentze-lanak	Berria ez	Oinarri-kontratua	Ez				✓	Zerbitzuak	Unitateen mantentze integrala	15	~100

# FINANTZA ZOR GARBIA BRIDGE-A



# ONDARE GARBIA BRIDGE-A

(milioi eurotan)



(1)

ADIERAZLEAK	Errealak				Helburua		
	2021	2022	2023		2023	2024E	2026E
CO2 isurpenen murrizketa (%) 1&2 irismena (oinarri-urtea: 2019, SBTi) <sup>(4)</sup>	-	% 31,5 <sup>(2)</sup>	% 32,6	●	% 16,8	% 21	% 30
CO2 isurpenen murrizketa (%) 3 irismena (produktuaren erabilera) (oinarri-urtea: 2019, SBTi) <sup>(4)</sup>	-	% 22,9 <sup>(3)</sup>	% 46,8	●	% 25,2	% 30,5	% 40
CDP jasangarritasuneko balorazioa	-	B	B	●	B	A-	A-
EB taxonomiarekiko lerrokatzea (negozio-bolumena) (%)	-	% 76	% 80	●	% 80	% 82	% 84
Maiztasun-indizea	17,3	15,2	14,1	●	14,5	14,0	13,5
Bezeroen asebetetze-balorazioa (1/10)	7,7	7,8	7,9	●	7,9	7,9	8,0
Erakundearen osasun-indizea(1/10)	6,4	6,6	6,6	●	6,7	6,7	6,8
Sustainalytics-en jasangarritasuneko balorazioa	Baxua	Baxua	Baxua	●	Baxua	Baxua	Baxua
MSCI-ren jasangarritasuneko balorazioa	BBB	BBB	A	●	A	A	A
S&P-ren jasangarritasuneko balorazioa	54	64	63	●	66	66	70
Ecovadis-en jasangarritasuneko balorazioa	65	75	83	●	75	75	75

(1) Kudeaketa Arduratsuaren Aginte Koadroaren gaur egungo konfigurazioa 2021ean egindako Materialtasun Azterlanean identifikatutako gai materialei dagokie, eta urteko Jasangarritasunaren Kudeaketa Planaren berrikuspenetan eguneratu da. 2024an, Materialtasun Bikoitzeko Azterketa egingo da eta, horren ondorioz, gai materialen zerrenda berria aterako da. Aginte Koadroaren konfigurazioan eragina izan dezake eguneraketa horrek.

(2) 2022ko Jasangarritasuneko Txostenean argitaratutako balioa: % 30. Irismenean Reichshoffen gehitu ostean zuzendutako balioa: % 31,5

(3) 2022ko Jasangarritasuneko Txostenean argitaratutako balioa: % 14,8. Irismenean Reichshoffen gehitu ostean zuzendutako balioa: % 22,9

(4) SBTi-ri bidalitako Net-Zero joera, oraindik balioztatzeke dagoena.

● Helburuaren berdina edo hobea  
● Aurreko urtekoa baino hobea, helburua baino okerragoa  
● Aurreko urtekoa eta helburua baino okerragoa

# ERRENDIMENDUKO NEURRI ALTERNATIBOAK (MAR, gaztelaniaz)

Oro har onartutako kontularitzako araudiaren (NIIF) arabera prestatutako finantza-informazioaz gain, CAF Taldeak negozioaren kudeaketan modu errepikakorrean eta kontsistentean erabiltzen ditu Errendimenduko Neurri Alternatibo batzuk ("Alternative Performance Measures", "APMs" ingelesez) bere jardueraren bilakaera azaltzeko lagungarriak direla uste duelako. Neurri horiek emaitzarekin, balantzearekin eta kutxaren fluxuarekin lotutako kontzeptuak jasotzen dituzte.

Dokumentu honetan erabili ditugun MAR guztien banakapena eta haien definizioa eta, dagokionean, finantza-egoerekiko bateratzea **2023ko Urteko Txostenaren baitako Kudeaketa Txosten Bateratuan** dago jasota. Dokumentua CNMVren webgunean ([www.cnmv.es](http://www.cnmv.es)) eta sozietatearen webgunean ([www.caf.net](http://www.caf.net)) dago irakurgai, 11. atalean - Errendimenduko Neurri Alternatiboak.

**CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE  
FERROCARRILES, S.A. ETA CAF  
TALDEA OSATZEN DUTEN  
MENDEKO SOZIETATEAK  
(BATERATUA)**



**2023KO URTEKO TXOSTENA**



**2024KO OTSAILA**



# AGENDA

**2024ko martxoak 5-14**




**Roadshow-a 2023ko emaitzen ondoren**

- Madril
- Paris
- Londres
- Zurich
- Geneva
- Milan
- Munich

**2024ko maiatzak 9**



**2024ko 1HHko emaitzen argitalpena**



**Harremanetarako: Akziodunentzako eta Inbertsiogileentzako Arreta Bulegoa:**

**[accionistas@caf.net](mailto:accionistas@caf.net)**

TRANSPORT SYSTEMS  
TRAINS  
BUSES  
SIGNALLING  
COMPONENTS  
SERVICES

**Your Way**  
to Future Mobility

**TRUST  
IN MOTION**